Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

189 zenbakia
2018 **martxoa**

Prest!

BERBETAN: IRANTZU LOPEZ MATIAS ERREKALEORREKO BIZILAGUNA

ERREPORTAJEA: BITARTEAN, VICINAY AUZOTARRENTZAT **BARKUA:** GOI HERRIK 40 URTE

TOKIKOM

183-184-185-186-187-188-

Gure babesleak

Bizkaia foru aldundia diputación foral

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Bilbao

berbaizu euskaraelkartea

S.D. DEUSTO

BIHOTZ ALAI FOLKLORE DANTZA TALDEA

intxixu kastola

etxantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

DEUSTUKO JAI BATZORDEA

erraldoien ondalan konpartsa

ARRAVN TALDEA DEVSTV

ELORRI BERTSO ESKOLA

eaj pnv deustu

bekoerri kultur elkartea

zirikatzen!

Etxerat

EGUNSENTIA ESKAUT TALDEA 1982TIK

PARE HAUTSI DITZAGUN KATEAK

DEUSTUKO GAZTE ASAMBLADA

MIKELDI DANTZA TALDEA

LABORAL kutxa

ernai Deustua

DEFENDA DEZAGUN!

Prest! izan

Harpidetu urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

HONA:
Prest! aldizkaria
Ramon y Cajal 42
Deustua 48014
94 447 10 42

EDO HONA:
bilbokoaldizkariak@gmail.com

189 zenbakia
2018ko martxoa

aurkibidea

Arantza Etxebarria - Gaizka Suarez **Iritzia** 4

Ivan Barrio **Gureak kanpoan** 5

erreportajea
Bitartean, Vicinay auzotarrentzat
Cadenas Vicinayren azken eraikina hustu bezain pronto hondatu dute arpilaketan aritu direnek. Erriberako auzotarrek eraikina garbitu eta txukuntzea erabaki dute dauzkaten beharrizaneterako erabiltzeko. 6

Deustuko ikastola **Eskola** 10

Deustuko salletarrak, Hilario Zelaia eta euskarazko irakaskuntza **Behin batean** 12

Zabor organikoaren bilketan datu apalak **Artikulua** 14

berbetan
IRANTZU LOPEZ MATIASekin
Gasteizko Errekaleor auzo okupatu eta autokudeatuan egun bizi diren 100 lagunetik bi deusturrak dira. Irati Aritzeta eta Irantzu Lopez. 16

Finkatzen hasiak, 1969 **Irudiak berbetan** 21

barkua bete berba 24

MUSIKA 80ko Bizkaiko punk taldeen bilduma

SAREKADA Klik eta klik

PINTXODROMOA Deustuko Batzokia

KULTUR TXOTX Josu Oleaga eta Itxasne Rodriguez

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustua 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com
uriola.eus
@uriolaeus
facebook.com/uriolapuntueus

Zuzendaria: Lur Mallea
Erredakzioa: Olatz Arregi, Bea Medrano, Nerea Olaziregi, Ane Rotaetxe, Amaia Ruesgas, Borja Sarrionandia-Ibarra, Ane Zabala, Hektor Ortega, Jaione Ayestaran, Adriano de Mata, Nuria Arroyo, Amaia Mintegi, Itziar Fernandez
Kolaboratzaileak: Gaizka Suarez, Arantza Etxebarria, Josu Oleaga, Janire Soldevilla, Elorri Bertso-Eskola, Patxi Gaztelumendi, Txema Luzuriaga, Deusto ikastetxea, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola
Argazkiak: Javi Garcia - Iñigo Azkona
Publizitatea: Ninbe Moreno
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Amaia Gil Basterretxea
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01
ISSN: 1577 - 9017

Arantza Etxebarria Iturrate
arratiarra Deustun

Martiak 19

Udabarrian jaio zinan eta udabarriak eroan zaitu. Gorbeiak ikusi dauz zure lehenengo eta azkenengo pausoak. Hori dala eta, enbidia deutsat Gorbeiari, nik baino gehiago dakialako zutaz, nik baino urte gehiago emon daualako zuri kukuka.

Gogoan dot, txikitan, oporretan, hara eta hona ibiltzea erritoa izaten zala, kotxean, kantau eta kantau. Euskal abestirik gehienak orduan ikasi nebazan nik, oporretan, txikitan, kotxean. Gogoan dot abesti asko kantetan zenduzala, edo, behinik behin, akordu hori daukat nik. Zugandik ikasi neban artean ahaztu ez dodan kantea, gaur egun hain famatu egin dana: "Mendian, lahar artean, aurkitzen da loretxo bat". Askotan, amesetan, kanta horretako lorearen lekuan ikusten zaitut, arantzeak estututa.

Zu joan zinen, eta hemen itxi zenduan zure ortua. Harrezkero, ortuaren antzera, neure azalean sentitzen dodaz iñizituen erreak, txingorraren kolpeak, bero-saparen mina. Urtero lez, udabarrian loratzen ari jakuz baztarrok, baina zure ortua sasiz beteta dago aspaldian.

Beheko suaren argitan aspaldiko gorabeherak kontetan emon ez genduzan gauen faltea sentitzen dot. Alkarregaz egin barik itxi genduzan barre eta negarren faltea sentitzen dot. Azken baten, zure faltea sentitzen dot. Guztiz bete barik geratuko dan zuloa itxi dozu nire barruan, betiko.

Lerro honeek opatzen deutsudaz zuk literaturea lar gustoko izan ez arren, hauxe egiten dakidalako, edo hauxe egiten dakidala pentsetan dodalako. Baina intuizinoak esaten deust zuk fantasia ez dozula gustuko, errealidadea baino, gordina eta gogorra dana jakin dakizun arren.

Zorionak!

Gaizka Suarez Iparragirre
abertzalea

Lubakiak

Gutako asko ezustean hartu gintuen aurreko otsailaren 28ko elurte ikusgarriak. Euskal Herri osoan zuritu zuen, eta Deustu ere ederto jantzi zen. Gurean horrelakoak gutxitan gertatu ohi direnez jendeak ez zuen elurrarekin jolasteko eta argazkiak ateratzeko aukera galdu, ezagun gehienek beraien *InstaStory*-ak baliatu zituzten postureo ederra egiteko.

Hala ere, gertaera horrek bere beste aurpegia izan zuen: metroa gainezka, auto-ilara amaigabeak, bidea egin ezin zuten autobusak, bertan behera geratu ziren EHUko klaseak... Nola da posible!

Askok kezkaz hartu zuten 6-8 zentimetroko elurteak ordu batzutan gure herriko jarduera baldintzatzeko izan zuen gaitasuna. Niri, ordea, oraindik ere askotan guztiaren gaineko kontrola duen eta garaezina dirudien sistema hau desegonkortzeko lubakiak badirela ikusteko balio izan zidan.

Telekomunikazio ingeniaritza ikasketak egitean argi sumatu dut teknologia berrietan dagoen joeretako bat kontrolaren gizarteari baliabideak ematea dela, gure bizitzako jarduera oro *Big Data* deritzonarentzat informazio bihurtzeko. Datuok segurtasunaren eta Google zein Microsoft bezalakoen 'zerbitzuak hobetzeko' leloen izenean batu eta erabiltzen dituzten arren, horren atzean *1984* eleberrian deskribatutako errealitatetik oso hurbil dagoen bat eraikitzeko estrategia dago.

Zezeilaren 28an zerbaitek ihes egin zien eta pozez hartu nuen. Ez dago dena galduta, boteretsuak indartsuak dira, baina ez garaitezinak. Itxaropen lubakiak geratzen dira bestelako etorkizuna marrazteko.

Ivan Barrio

Jatorria: Arangoiti
Bizitokia: Byron Bay (Australia)
Lanbidea: bidaiaria

"Hizkuntza menperatzen ez nuenean gitarra ezinbesteko aliatua suertatu zait"

Testua
Ane Rotaetxe
Argazkia
Ivan Barrio

Zergatik Australia, Ivan?
Hiru arrazoigatik; ingelesa, eguraldia eta natura. Egundoko txokoak dituen herrialde itzela da, oso basatia natura aldetik. Horrez gain, itsasoa maite dut, eta egunero hor gertu izatea niretzat ametsa zen. Hemengo udan etorri naiz, eta bilbotarra izanda, eguzkia izatea beti eskertzen da. Azkenik, ingelesa ikasi nahi nuen.

Zerk harritu zaitu gehien? Zer da gustatu ez zaizuna?
Naturak, dudarik gabe. Eskualde tropikala da hau, eta hemengo edozein paseo ikaragarria da. Adibidez, eskolara joateko parke natural batetik eta hondartzatik pasa behar dut. Gutxien gustatu zaidana garraio publikoa da, oso, oso eskasa eta garestia da. Australia autoentzat pentsatuta dago.

Bakarrik joan zara. Zelan prestatu duzu horrelako bidaia?
Interneten ordu askoz sartuz, batez ere. Gero herria aukeratzean eskolarekin hasi nintzen harremanetan, eta haiek lagundu zidaten *visa* ateratzeko behar diren tramite guztiekin, denetarik eskatzen baitute. Zailena nire bizitza ondo 'itxita' uztea izan zen.

Zure ingeles maila ez zen bereziki ona. Eta orain?
Momentu latzak izan nituen haiseran, noski. Nire belarria harria bezalakoa zen, ez nuen batere ulertzen betiko topikoetatik at, eta batzutan inpotentzia asko sentitu dut. Pixkanaka hobetu dut, eta gauzak onerako aldatu zaizkit, noski.

Zonalde surfero baten zaude. Probatu al duzu?
Bai. Herri honek surf kultura handia du, eta adin guztietako jendea ikus dezakezu surfa egiten, 65 -70 urtetakoak ere bai. Nire etxean, adibidez, sei lagun bizi gara, eta seitik hiruk surfeatzen dute. Sarritan beraiekin joaten naiz haiek utzitako *longboard* batekin. Asko gustatu zait, hori bai, esfortzu asko eskatzen du, eta gehienetan nahiago dut gitarra hartzea, kar, kar, kar.

Zelakoa da Byron Bay herria? Zelako giroa dago?
Ez nuen hiri bat nahi, eta herri bat aukeratu nuen. Plentzia batekin konpara daiteke, baina giro handiagorekin. Oso interkulturala eta tropikala da, eta hondartza basatiz inguratuta. Hemen bizitza oso erraza da, dena nahiko gertu dago, eta plan asko egiteko aukera handia. Bestetik, herri oso kulturala da, bere garaian herri nahiko *hippy*-a zen, eta oraindik kutsu hori mantentzen du, batez ere musika eta kulturari ematen dioten garrantzia ikusita. Egunero dago zeozer egiteko eta, planik ez badago, beti duzu egundoko hondartza etxe alboan.

Lagunak egin al dituzu?
Bai, asko. Hemengo jendea nahiko irekia da, eta horrek asko errazten du dena.

Musikaria zara. Zelako eskaintza musikala dago?
Oso herri musikala da. Adibidez, taberna eta jantoki askotan zuzenekoak daude eta kalean beti daude musikari itzelak jotzen. Horretaz aparte hiru areto handi daude non ia egunero zeozer dagoen.

Gitarra jo duzu bertako garitoren baten ala kalean?
Gitarra asko jo dut, baina lagunekin hondartzan edo bazkarietan, besterik ez. Hasiera batean, hizkuntza menperatzen ez nuenean gitarra ezinbesteko aliatua suertatu zitzaidan, eta berari esker jende asko ezagutu nuen. Konturatu naiz gitarra bat dagoenean jendea horren inguruan biltzen dela. Musika lenguai unibertsala dela diote, eta hemen baieztatzeko aukera izan dut.

Bidaiatzeko aukera izan duzu?
Eskola hasi baino lehen Melbourne, Sydney eta parke natural batzuk bisitatu nituen. Orain ahal dugunean txangoak egiten ditugu hemengo parkeetara. Baina oso adi ibili behar da oihanean, suge eta armiarmaz beteta dago dena... eta hondartzan marrazoak ditugu lagun. Ongi etorri Australiara!

BITARTEAN, VICINAY AUZOTARRENTZAT

Cadenas Vicinayren azken eraikina hustu bezain pronto hondatu dute arpilaketan aritu direnek. Erriberako auzotarrek eraikina garbitu eta txukuntzea erabaki dute dauzkaten beharrizaneterako erabiltzeko. Obra berria hasi bitartean erabiliko dute.

Testua
Lur Mallea
Argazkiak
Nerea Cubillo, Laura Freijo, Erriberak bizinahi du!

Kateen zarata eta kateek lurra jotzean eragiten zuten dardara oso gogoan ditu Josek oraindik. “Etxe osoak dar-dar egiten zuen. Oso desatsegina zen”, dio. Vicinay lantegiaren ondoko etxean bizi izan da urteetan Jose. Azken bi urteetan, berriz, “lasaitasuna” da nagusi.

Jonek Vicinayko langileak ditu gogoan. Enpresa handia izaki, behargin asko zituelako. Lantegian “sartu eta irten” ibiltzen ziren. Baita inguruko tabernetan ere, bazkaltzen edota zeozer hartzen. Deustuibarrako tabernek “eurei esker” biziraun dute.

Nereak Erriberako jaietarako Vicinayk ematen zuen diru-laguntza aipatzen du. Ekarpen handiena berak egiten zuen, “auzokideekin harreman ona mantendu nahian eta eragiten zituen eragozpenak arindu nahian”.

Cadenas Vicinayk 2015ean utzi zion Deustuko Erriberan kateak ekoizteari. 1943an Deustuibarran ezarritako enpresa urteetan mundu mailako liderra izan da, batik bat neurri handiko kategintzan. Aspaldian espero zen bere leku aldaketa Erriberatik Sestaora, Bizkaiko Labe Garaiak egondako lursailera. Beste lantegi batzuk egin bezala, etorkizuneko Zorrotzaurre proiektuari lekua egiteko Cadenas Vicinayk ere maletak prestatzeari ekin zion. 2010ean, ondo bidean, hiru urteren buruan lantegia oso-osorik Sestaon jardungo zela aurreikusi zuten. Zorro-

tzaurre proiektuari lotutako gainerako epeekin gertatu bezala, Vicinayren leku aldaketa espero baino gehiago luzatu da. Azken hiru urteak eman ditu Vicinayk Erriberan zeuzkan eraikinak husten. 2018ko hasieran ondasun guztiak utzi arte.

Lantegiak hustu ostean, urtarrilaren amaieran, Vicinayko azken langileek bulegoen eraikina behin betirako itxi eta alde egin zuten. Eraikina Zorrotzaurre proiektuko planifikazioak berak babestutako 19 erakinetako bat da, bere ondare-aberastasunagatik eta bertako industria-memoriagatik zaindu beharrekoa. 1946. urtean eraikia, Ricardo Bastida arkitekto bilbotar entzutetsuaren proiektuaren arabera, Banco de Bilbaoren artxibategia gordetzeko.

"Joatean abisatuko zigutela esan ziguten, baina ez". Ez zituzten auzotarrak abisatu. Hurrengo egunean, eraikinaren kanpoaldean furgonetak prest zeuden. Txatarreroenak. Hainbat lagun sartu ziren bulegoetara, eta baliodun objektuak eraman zituzten: leihoak, hodiak, kableak… "Arpilatze programatua" zirudien Nerearen hitzetan.

Erriberako bizilagunentzat erabilgarria izan zitekeen beste eraikin bat erabat hondatzen utzi aurretik, auzotar talde batek "gu ere sartuko gara" erabaki zuen otsailaren 10ean, "ea zer gertatzen den". Ana auzotarraren arabera, "pabiloi abandonatuen erreinuan ez baitugu erabilera anitzeko lokalik". Jon auzokidearentzat Vicinayn sartzen zen lehen aldia zen. "Hustuta zegoen barrutik, utzita, apurtuta". Eraikinaren egoerak hunkitu egin zuen, kristal apurtuek, ateratako kableek. "Dena izatetik ezer ez izatera pasa da egun gutxitan".

"Eraikinaren hezurdura utzi dute" Vicinayn. Baina ez da gauza berria, Nerearen hitzetan. Cromoduro enpresan edota Zorrotzaurreko beste hainbat lantegitan gauza bera gertatu da. "Jabeek eraikinak babes gabe uztean, txatarreroek eta ahal dutenek bertan sartu eta hustu egin dituzte". Kontua da, Vicinay Erribera auzoaren erdian kokatuta dagoela, etxebizitzen artean, eta horrek auzotarrak mugiarazi dituela: "Auzoa mugitu egin da eta bat-batean berez antolatu da, Deustuko Erriberaren erdi-erdian dagoen eraikin honekin zer egin erabakitzeko".

"Dena izatetik ezer ez izatera pasa da egun gutxitan"

Katebegiaren azken ondorioa

Urteak darama Erriberako auzo elkarteak Bilboko Udalari lokal bat eskatzen auzoko jardueretarako. Eskaerei orain arte entzungor egin die Udalak. "Dena izan da luzapena. Legearen garapenaren zain izan gaituzte, beti gerorako utziz gure eskariak, etorkizuna salduz". Vicinayn auzotarrak sartu eta astebetera, otsailaren 24an, prentsaurrea eskaini zuten arte. Orduan, auzotarrek publikoki kezka adierazi zuten eraikin historikoaren "abandonatze eta dekadentziagatik" eta, "auzorako espazio falta zela eta", auzolanean eraikina "berreskuratzeko asmoa" agertu zuten. Hain zuzen ere, "ekintza sozialak eta kulturalak egiteko". Aukezpena egin eta egun batzutara deitu zieten Udaletik, bilera batean elkartzeko proposamena eginez. Nereak dioenez, "dena joan da lotuta. Katebegiaren azken ondorioa da".

Harriduraz jaso dituzte erakundeen "hitz onak". Ez Udalak ez Vicinayk "ez dute txarto irizten" auzotarrak Vicinayn egotea, Zorrotzaurre planean hitzartutako ikastetxe bat egiteko obrak hasi bitartean. Lanbide Heziketako ikastetxe bat eraikitzekoak dira Vicinayko bulegoak zeuden lekuan bi urte barru. Baina "epeak inoiz betetzen ez" direla eta, auzotarrek "bitartea" baliatuko dute. Epea mugatua dela jakin badakite. Bi urte, hiru, lau… izan daitezkeela. "Burokraziaren menpe dagoela". Orain artekoari erreparatuta behintzat, Erriberan "dena oso, oso motel doa".

Auzo elkartea, arrakastarik gabe, Udalari lekua eskatzen ibili den bitartean, hainbat eragilek kultur jardueretarako espazioa eta diru-laguntzak eskuratu dituzte. Azken hamar urtetan pabiloi hutsak egokitu dituzte, besteak beste, erakundeengandik jasotako bultzadarekin. Kultur eragileek auzoan egindako lana eskertzen duten arren, auzotarrak tarte honetan "ikusle hutsak" izan dira. Izandako aldaketak "pasatzen ikusi ditugu", diote. Orain, aldiz, "protagonista" sentitzen dira. Eta Vicinayk eskaintzen dizkien aukerak "erantzun indartsua" sortu du Erriberan. "Erratza hartu eta edozer egiteko prest" agertu dira bizilagunak. "Ilusio berezia" sortu da Joseren esanetan: "Gauzak egiteko gogoa, auzotarren artean harremanak estutzeko balio izan duena. Erribera txikia da, eta denok ezagutzen dugu elkar, baina horrek ez du esan nahi harreman estua dugunik. Komunitate bezala trinkotu gaitu proiektuak. Jendea oso gogotsu dago, auzoari bizitza emateko, erriberatorron arteko sarea ehuntzeko". Jon ere pozik

dago bizilagun desberdinak batzeko balio izan duelako: “Adin eta pentsakera oso desberdina duen jendea proiektu berean ez dut inoiz ikusi Erriberan. Polita da”.

Erriberako auzogunea

Espazio berriarentzat izena hautatu dute: Erriberako auzogunea. Batetik, Erribera auzoaren izena aldarrikatzeko modua da eta, bestetik, izen egokia da auzoan mugitzen diren taldeei eta ekimenei espazioa emango dien gunea izendatzeko”.

Oso espazio handia da Vicinayko bost solairuko eraikinak eskaintzen duena. “Espazioa soberan dago”, eta horregatik lehen solairua eta “agian” bigarrena soilik erabiliko dituzte.

Vicinayko arduradunek arpilatzeen berri izan dutenean, eraikina zaintzeko bi zaindari jarri dituzte txandaka lanean. Auzotarrak hurbiltzen direnean, “*tienen ustedes permiso?*”, galdetzen diete. Auzotarrak, baietz erantzun, eta barrura sartzen dira. “Harreman ona” dute zaindariekin.

Garbiketa eta konpontze-lanak gutxika aurrera doaz. Bai kanpoaldeko lorategian bai eraikin barruan. Mantenimendu lantaldea arduratzen da horretaz. Jon taldekideak azaldu duenez, “kristalak eta hondakinak garbitu ditugu, ur-hodien apurketak konpondu ditugu, komun batzuk erabiltzeko egokitu ditugu, eta argindarra konpontzen ari gara. Apurka osatzen ari gara egun bateko txikizioa”.

Erriberako auzogunean zumba klaseak martxan dira jada astelehen eta asteazkenetan. Erabilera anitzeko gela eta auzo elkartearentzat bulegoa hasi dira forma hartzen eraman dituzten altzariei esker. Baita gimnasioa ere Karmelatik jaso dituzten bizikleta estatikoei esker. Gela bat umeek ludoteka gisa erabiltzeko egokitzea pentsatu dute eta beste gela bat argazkiak errebelatzeko.

“Espazio berrirentzat izena hautatu dute: Erriberako auzogunea”

Ideiak ez dira falta Erriberako auzotarren artean. Lantaldeetan banatuta antolatzea adostu dute, eta denen artean zehaztea espazioari emango dioten erabilera.

Bitartean, espazioa txukuntzen badute nahiko lan. Apirilaren 14rako zati handi bat txukunduta izatea nahi dute, egun horretan ate irekien jardunaldia egiteko eta Deustu osoari Erriberako auzogunea erakusteko.

facebook.com/Erriberak-Bizinahi-du

www.renault.es / 902 333 500

RENAULT BILBO BERRI

IBILGAILU BERRI ETA BIGARREN ESKUKOEN SALMENTA
MANTENTZE ZERBITZU AZKARRA • MEKANIKA • KARROZERIA

RENAULT QUALITY MADE
RENAULT WORLD CHAMPION ENGINE

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU. www.bilboberri.com

RENAULT gomendatzen du elf

RENAULT

JOSI TA JOSI

Deustuko ikastolako gazteek josten eta bordatzen ikasi dute Plastika ikasgaian. Esperientzia izugarri gustatu zaie "oso polita, erlaxagarria, eta dibertigarria" delako.

Testua eta argazkiak
Deustuko ikastola

Antzina, emakumeek soilik bordatzen zuten, bai denbora librean entretenitzeko, edota bere gizonarentzat eta bere buruarentzat jantziak, izarak, edo beste edozer apaintzeko. Gizonek ez zekiten ez bordatzen, ez josten, hori nesken gauza zela esaten baitzuten.

Jostea edo bordatzea, emakumeentzako gauza dela pentsatzen dute askok, baina gu, DBH hirugarren eta laugarren mailako ikasleok, ez gaude horrekin ados.

Gaur egun Deustuko Ikastolako DBHko hirugarren eta laugarren mailako ikasleoi gure Plastikako irakasleak brodatzen irakatsi digu, eta horri esker, bai neskok bai mutilek oso ondo pasatzen dugu.

Irakasleak bordatzera gindoazenean esan zigunean, denak jarri ginen pozik, irrikitan geunden hasteko baina, batez ere mutilak, hasteko oso gogotsu zeuden.

Gainera, klasean egin behar duguna gai askea da, nahi duguna egin dezakegu oihalaren gainean. Batzuek argazki bat kopiatzea aukeratu dute, beste batzuek marrazki bat egitea eta badaude hirugarren batzuk momentuan asmatu dutela.

Giro polita

Klaseetan giro polita dago, musika jartzen dugu brodatzen dugun bitartean entzuteko, eta gure artean inolako problemarik gabe hitz egin dezakegu.

Irakasleak hau irakatsi digu ilustrazioak egiteko beste modu bat dela diolako, ez beti margoekin edo pintzelekin marrazten egoteko. Gainera, hau betirako gogoratuko dugun gauza bat izango da, eta gure bizi-

tzan estresatuta egongo garen edozein momentutan erlaxatzeko balioko digu.

Orain, irakasleak, gauza berriak egin behar ditugula esaten digu, denbora asko daramagula bordatzen, eta gauza berriak egiteko denbora heldu dela. Baina gu, hain gustura gaude bordatzen, denbora gehiago eskatzen diogula, Plastikako asignatura pasada bat da bordatzen gaudenean, oso entretenigarri eta lasaia da, eta azterketekin daukagun estresa kentzen digu. Eta gero etxera heltzean, askok, bordatu egiten dugu telebista ikusten dugun bitartean.

Inkesta

Bi kurtsotan inkesta bat egin genuen, eta ikasle gehienek esan zuten uste zutela entretenigarria eta erlaxagarria zela. Gehiengoak gustatzen zitzaiola esan zuen, eta bi kurtsotan erdiak baino gehiagok (nahiz neskek nahiz mutilek) esan ziguten beraien etxeetan hau egiten jarraituko zutela. Gainera, ikasle batzuek adierazi ziguten interneten puntada berriak egiteko moduak bilatu dituztela, interes handia dutelako. Honi esker, koloretako hariekin margotzen ikasi dugu, eta denok gure sormen aldea daukagula konturatu gara.

Gomendatzen dizuegu bordatzen ikastea, oso polita, erlaxagarria, eta dibertigarria delako, eta edonon praktikatu daitekeen gauza delako.

ARTEBI
MUSIKA, ARTE ESZENIKO ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN BILBOKO ESKOLA
MUSIKA - DANTZA
ANTZERKIA - GIDOIA
Jon Arrospide, 14 - 48014 Deustu-Bilbo tel: 94 475 85 33 faxa: 94 475 56 49
artebilbao@terra.es www.artebi.es

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

DEUSTUKO SALLETARRAK, HILARION ZELAIA ETA EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA

Salletarrek, Deustuko gainerako eskola guztiek bezala, kalte handia egin zioten euskarari XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen lehenengo herenean. Frankismoan, ostera, euskararen alde jardun zuten salletar askok. Baina hazia gerra baino lehen erein zuten.

Testua: Hektor Ortega

1934ko urtarrilean elizbarrutiak kristau-ikasbidearen gaineko jardunaldiak egin zituen Bilbon, Kristau Ikasbidearen Astea izenburupean, Mateo Muxika gotzaina buru zela. Hizlarietako hiruk euskaraz egin zuten. Hiruretan lehena *Umetxuentzat irakasbide berezia* izeneko hitzaldia izan zen. Hilaren 29an, astelehenean, Abandoko Done Bikendiko katekesiaren lokaletan, Mateo Muxikak berak aurkeztuta, Hilarion Zelaiak berba egin zuen gai horren inguruan. Zehazki, *Euzkadi* egunkarian irakurri dugunez, ondoko hau azaldu zuen: "Umearen aurrean maisuak erakutsi egiten du, alegia, ikustarazi; helduaren aurrean ostera, irakatsi egiten du, alegia, ikasarazi. Hortaz, maisua umearentzat erakuslaria izan behar da eta helduarentzat, irakaslaria".

Berba haiekin esan nahi zuen umearekin prozedura pedagogikoak zeharo intuitiboa izan behar zuela, grafiko, proiekzio, grabatu, adibideak eta historia baliatuz. Kazetako kronikaren arabera, ume txikiekin egindako katekesi lana nabarmendu zuen, orduan ez baitzen, bere ustez, behar bezala baloratzen. "Eta entzule ugarien aurrean, umetxu talde bat hartu zuen eta haiekin egin zuen, euskaraz, bere hitzaldiaren aplikazio praktikoa". Entzuleek, kazetariak idatzi zuenaren arabera, txalo zaparradaz erantzun zioten eta bereziki maistrei gustatu omen zitzaien. Mateo Muxikak berak zoriondu zuen.

Nahiko irizpide pedagogiko aurreratuak ematen dituzte, kronika laburrak iradokitzen dituen horiek. Eta, hara non, euskaraz. 1934an. Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Bada, sasoi hartan, Hilarion Zelaia Deustuko salletarren ikastetxeko zuzendaria zen. 1933 eta 1936 bitartean egon zen Madariagan zuzendari. Ezarri ote zuen Deustuan proposamen haietakoren bat? Egin ote zion lekurik euskarari?

Hilarion Zelaia

Hilarion Zelaia Gurrutxaga (1891-1973) Zarautzen jaio zen eta bertan sartu zen salletarren anaidian, 1907an. Ludovico Maria izena hartu zuen. 1929an Azkoitiko Floreaga ikastetxeko zuzendari jarri zuten eta, besteak beste, bertako araudia osatu zuen. Testu hartan nabarmenak dira hezkuntza ildo berriekiko atxikimendua eta Bilboko hitzaldian aldarrikatu zuen intuizioaren aldeko apustua.

'Aurtxoen kristau ikastia'





'Zenbakizti' (aritmetika)

Hura udal ikastetxea zen, salletar anaien eskutik bazegoen ere. Ludovico Maria anaiak Azkoitiko Udalarekiko hitzarmena berritu zuen, elkarteak sustatu zituen (guraso elkartea, ikasle ohiena...) eta sasoi hartantxe (1932) euskarazko dotrina argitaratu zuen: *Aurtxoen kristau ikastia*. Hala ere, orduko legediari men eginez, eskola guztiak erdaraz ematen zituen Azkoitiko ikastetxeak, erlijioa izan ezik. Eta salbuespen hori legez kanpokoa zen, 1902ko araudi batek ikasgai guztiak erdaraz ematera behartzen zuen eta.

1933ko irailean, erlijio elkarteak sekularizatzeko legearen ondorioz, Ludovico Maria anaiak Azkoitiko ikastetxea utzi zuen, gainerako anaia guztiekin batera. Haien ordez laiko gisa aurkeztutako beste anaia batzuk agertu ziren, ikastetxearen ardura hartzeko. Ludovico Mariak Hilarion Zelaia izena berreskuratu zuen eta, bera ere laiko moduan, Deustuko ikastetxera etorri zen zuzendari, Azkoitiko beste anaia birekin batera. Irailaren 15ean heldu ziren eta Madariagako ikastetxeaz jabetu ziren, Ibarra Fundazioko maisu katoliko gisa.

Hiru urte egin zituen Deustuan zuzendari, Hilarion Zelaia izenarekin. Bitartean salletar anaiek lanean segitzen zuten eta, besteak beste, euskarazko irakaskuntza ireki ahal izateko pausoak ematen hasi ziren, Eusko Ikaskuntza eta Bruño eta Itxaropena argitaletxeekin batera. Lantaldeak sortu zituzten euskarazko liburuak argitaratzeko. Batzuk plazaratu zituzten: *Zenbakiztia* (aritmetika), *Neurriztia* (geometria)... Horietakoa izan zen lehen aipatutako *Aurtxoen kristau ikastia*. Beste batzuk kaleratu barik gelditu ziren, *Euskal irakurgaien antologia* adibidez, 1936ko matxinada militarra heldu zelako.

Zeregin horietan ibili zirenetako gehien-gehienek erbestera joan behar izan zuten frankistak nagusitu zirenean: Iñaki Olabeaga, Juan Bautista Mintegiaga, Manuel Oiartzabal eta Hilarion Zelaia bera. Zelaia Ameriketan babestu zen. Erregimen berriak ez zien barkatu euskararen alde egindako lana.

Errepresioak eta gorrotoak bide hura eta beste asko zapuztu zizkioten euskarari. Baina zapalkuntzarik gogorrena igaro ostean, berriro loratu ziren. Baita Deustuan ere, baita salletarren artean ere. Seie (Salleko euskal idazleen elkartea) osatu zuten eta euskarazko irakaskuntzari bultzada itzela eman zioten 1960ko hamarkadatik aurrera. Hilarion Zelaia, Iñaki Olabeaga eta gainerako erbesteratuen lanari segida eman zioten.

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99



ZABOR ORGANIKOAREN BILKETAN DATU APALAK

Testua
Borja Sarrionandia-Ibarra

2011ko otsailaren 15ean hasi zen Deustun etxeetako gai organikoak 5. edukiontzi marroiaren bidez biltzeko zerbitzua. Hondakinak gaika biltzeko eta kalitate handiko konposta egiteko Bizkaian 5. edukiontzi pertsonalizatua jarri zuen aurrena Deustu izan arren, zazpi urteren bueltan, egun, egin dezakegun balantzea ez da batere positiboa. Deustualdean bizi garen 19.205 familietatik 2.821ek baino ez dute erabiltzen, hau da, %14,6k.

Bilboko Udaleko Obra, Zerbitzu, Hirigintza Eraberritze eta Espazio Publikoaren zinegotziak 2017ko abenduan jakinarazi zituen datuen arabera, hondakin organikoen edukiontzia erabiltzen duten familia kopuruen inguruko datuak nahiko apalak dira Deustualdean.

Nahiz eta Deustuko Doneperiaga eta Deustuibarra auzoetan 2011n abian jarri (Arangoiti, Elorrieta, Ibarrekolanda eta San Ignazio auzoetara 2015eko amaieran zabaldu zen), 19.205 familietatik 2.821ek erabiltzen dute (%14,6). Bilboko barrutiekin alderatuta, Deustu atzean gelditzen ari da. Deustualdeko erabiltzaileen portzentajea Otxarkoaga-Txurdinaga (%16,6) edo Begoña-Santutxukoa (%15,5) baino txikiagoa da, aipatutako bi horietan orain dela bi urte eskas martxan jarri arren.

Zabor bilketan hondakin organikoaren Bilboko tasa anekdotikoa da, %3,7koa, nahiz eta etxeko hondakinen %40 izan. Horrek zerikusia izan dezake sentsibilizazio kanpaina faltarekin eta edukiontzi marroi gutxi egotearekin. Arangoitin, adibidez, auzo osoan lau edukiontzi baino ez daude.

Proposamena Barrutian

Emaitza apal hauek kezka sortu dute EH Bildu koalizioarengan. Europar Batasunak 2020rako ezarritako birziklapenaren %50eko helburuan laguntzeari begira, martxoaren 13an burututako Barrutiko Kontseilura proposamen zehatz bat eraman du Juan Antonio Alonso koalizioko eledunak.

Familien atxikimendua bultzatzeko EH Bilduk hiru proposamen jarri ditu mahai gainean: sentsibilizazio kanpaina egitea Deustualdeko auzo guztietan; eskola eta hezkuntza zentroetan sentsibilizazio kanpaina bereziak egitea eta beste bat ostalaritza, jatetxe eta elikagaien saltzaileekin; eta Arangoitin egun dauden edukiontzi marroien kopurua bikoiztea.

Izena emateko aukera

Berezitako bilketa honen xedea hondakinen aprobetxamendua hobetu eta materia organikoaren birziklapena areagotzea da, ingurumenari, ekonomiari eta osasunari eskaintzen dizkion abantailei erreparatuta.

Sukaldean prestatutako jatorri begetaleko hondakinak eta maneatu bako hondakinak (frutak, barazkiak, lekariak, ortuariak…), baita eta lore zein landareen hondarrak jasotzen dira edukiontzi marroian.

Besteek ez bezala, edukiontzi marroiek sarraila dute, eta ireki ahal izateko giltza eduki behar da. Hori dela eta, programan parte hartzeko izena eman behar da. 900 456 888 telefonora edota *deusto@bilbaokonpostaje.com* posta elektronikora edonork jo dezake parte hartzeko.

EURIAK EZIN IZAN DU DEUSTUARREN JAI GOGOA ZAPUZTU

Testua
Prest!

"Euriak ezin izango du gurekin" esaldia errepikatu eta errepikatu aritu dira Deustuko Jai Batzordeko kideak. Eta esan eta izan. Euriagatik hainbait jarduera bertan behera geratu dira eta beste hainbat Euskalduna zubipera lekualdatu dira. Baina, eguraldia aurka izan arren, Deustuko jaiek ez dute etenik izan. Egitarauaren egokitzapen eta aldaketa eta guzti, eutsi diote.

Lehen egunean, eguraldi iragarpen oso txarra bazegoen ere, ateri mantendu zen. Bihotz Alai taldeko kideek pregoi laburra irakurri zuten, eta segidan hasi zen konpartsa eta kuadrillen kalejira. Mozorro asko eta originalak ikusteko aukera izan zen. Kontzertuek jende piloa erakarri zuten. Gozatu ederra hartu zuten musikazaleek Sustrajah Band talde berriarekin, Galukomarekin eta Joseba B. Lenoirrekin. Karpa eta txosna gunea bete-bete egin ziren.

Bigarren egunean, 22 paella aurkeztu ziren lehiaketara. Konpartsa eta gazte kuadrillak ez ezik guraso kuadrilla ugari animatu ziren parte hartzera. Mahaiak eta aulkiak ez ziren nahikoa izan, azken urteetan bezala, aurreikuspena oso labur geratu zen, Jai Batzordearen arabera, parte-hartzea "gero eta handiagoa delako". Eguraldiagatik, haize korronte artean, Euskalduna zubipean elkartu ziren hainbat deustuar bazkaltzera. Umeek ere bertan egin zituzten eskulanak. Barraketan ere ibili ziren umeak. Egun osoan zehar, barrakak lepo beteta egon ziren.

Gauean, parranda goizaldeko 5ak arte luzatu zen. Jende anitza elkartu zen txosna gunean. Aurreko egunean baino jende gutxiago hurbildu zen txosnetara, eta horri esker edaria eskatzeko ez zen arazorik izan.

Igandean, Deustuko alkatearekin egin ohi den kalejirari eta Andrazkoen Aurreskuari, bustita bada ere, eutsi zioten dantzariek. Bildots errea jateko karpapean babestu behar izan zuten eta pilota partidua bertan behera utzi zuten. Herri giroa nagusitu zen, igandea deustuarren eguna izan ohi delako.

Bigarren asteburua

Ume eta gazteek izango dute protagonismoa bigarren asteburuan. Besteak beste, suzko zezena, playbacka eta kuadrillen olinpiadak prestatu dituzte eurentzat.

Tomate eta tortilla txapelketa gastronomikoak izango dira martxoaren 24an eta 25ean, hurrenez hurren.

Larunbatean, azpimarratzekoa da Front Off bertako taldeen musika jaialdia eta igandean, azken egunean, Botikazarreko txosnak itxi eta Done Petrin tomatea erre ostean Jai Batzordearen txosnaren inguruan sortzen den giro herrikoia. Azken txinpartak erretzen luzatzen ondotxo dakite deustuarrek.

berbetan

IRANTZU LOPEZ MATIASekin

Errekaleor auzo okupatu eta autokudeatuko bizilaguna

“Beti pentsatu dut ez gaituztela

Gasteizko Errekaleor auzo okupatu eta autokudeatuan egun bizi diren 100 lagunetik bi deusturrak dira. Irati Aritzeta eta Irantzu Lopez. Neguko arratsalde haizetsu batean eman dio ongietorria PREST! aldizkariari Irantzuk (Deustu, 1987).

Babeslea
Ardoonak
ardo-banatzailea
Agirre lehendakaria 11 - Deustu
Sarrera Madariaga 2tik
667 677 238 - ardoonak.com

Testua eta argazkiak: Lur Mallea

Errekaleorretik botako”

Zer da Errekaleor?

Galdera potoloa da. Askotan guk geuk ez dakigu gure buruari zelan erantzun. Niretzat bizi proiektu bat da, baita askoz gehiago ere, zeren bertan bizi naiz eta bertan militatzen dut. Niretzat dena da Errekaleor. Une honetan bizi nahi dudan espazioa da hau. Askatasun piloa ematen dit nahi dudana sortzeko nahi dudanarekin eta esperientzia konpartitzeko. Kanpora goazenean, esaterako, ateak zabaltzen dizkigute, eta oso pozgarria da.

24 orduko militantzia da?

Bai, uneoro hausnarketan ari baikara. Iazko maiatzean argia moztu ziguten, eta harrezkero bizi ereduari hainbat buelta ematen ari gara. Nekagarria ere bada dena baitago egiteko. Gainera, asko gara, eta pentsamendu eta egiteko modu desberdina daukagu. Talkak ere sortzen dira. 24 orduko militantzian, batzutan hain murgilduta zaudenez, dena lotzen da, eztabaida politikotik sortutako gatazka bat eta pertsonaletik sortutakoa. Lan asko dago egiteko etxean bertan. Urtebete eman dugu etxea atontzen, horietatik lehen hiru hilabeteak obra-hondakinak garbitzen.

***Crowdfunding*-aren bidez hainbat diru bildu duzue energia autoekoizteko. Lortu duzue instalakuntza martxan jartzea?**

Oso ondo atera zen *crowdfunding*-a. Kristoren indarra eta poza eman zigun hiru egun lehenago helburua lortzeak. Eta ez ziren helburu makalak. Lakaben eta Manresan informatu gara eguzki plaken sistemen inguruan. Ezarri dugun sistema autoekoizpenean oinarritzen da, ez dugu konektatu behar argindar sarera. Plakak baratzean daude, frontoian eta gizarte etxeko teilatuan. Oraindik esperimentazio fasean gaude. Kontsumitzen dugu sortzen duguna baino gutxiago.

Hasieratik duela aste batzuk arte generadore batekin moldatu gara. Izan ere, plakak ezartzeko espero baino denbora gehiago behar izan dugu.

Zelan antolatzen zarete Errekaleorren?

Asanblada orokorra, lantaldeen koordinadora eta lantaldeetan antolatzen da Errekaleor. Hainbat lantaldetan ibili naiz, baina une honetan denbora faltagatik lantaldeetatik kanpo nabil.

2012an lehen okupak ikasleak izan ziren. Zelako jende modua zarete egun?

Errekaleorren sartu nintzenean, 2015ean, ikasle giroa zegoen. 50 bizilagun izango ginen. Orduan hasi ziren Errekaleorren proiektua eta baratza lantzen, lantaldeak sortzen. Ikastera zetorren jendea zen nagusi. Orain, asko aldatu da profila. Bertan gelditzeko interesa duen jendea da, bizi proiektua bertan konpartitzeko prest dagoena. Garai batean 150 ere izan ginen. Jendea joan-etorrian ibili da eta orain 100 bat izango gara. Hasierako familia bakarra geratzen da. Badaude etorritako familiak, ikasleak… Argi mozketaren ondoren oso

“Askatasun piloa ematen dit nahi dudana sortzeko nahi dudanarekin eta esperientzia konpartitzeko”

IRANTZU LOPEZ MATIASekin

“Komunitatean bizitzen asko ikasten da”

Errekaleorren bizi zarela esatean, jendeak zer esaten dizu?

Galdera asko egiten dizkidate, ikus-mina sortzen du Errekaleorrek. Batzutan deskonektatu beharra duzu eta ezin duzu. Azkenengoz, sanferminetan gertatu zitzaidan.

Zenbat ikasi duzu Errekaleorren?

Dezente. Argindarraz oraindik oso gutxi. Baina, egia da, komunitatean bizitzen asko ikasten da.

Etxe estandar baten ikusten duzu zure burua?

Gaur egun ez, baina baditut gorabeherak. Horrelakoetan saiatzen gara ahalik eta gutxien eragiten besteengan, eta eragiten duenean ahalik eta arinen konpontzen. Norbere espazioaren beharra eta intimitatea izatea beharrezkoak ditugu, eta jakin dugu hori ere kudeatzen etxe barruan. Familia bat gara eta, oinarri feministei jarraiki, elkar zaintzen dugu. Hemen bizitzeak ematen dizu beste zerbaitek ematen ez dizuna, jendearen konpainia eta poztasuna. Komuna *hippy*-aren antzekoa da, baina politagoa, etxe hau iraultzailea baita.

jende motibatua etorri da, gaztea orokorrean, ezkerrekoa, komunitatean bizitzeko oso prest dagoena. Baita gero eta familia gehiago ere.

Zergatik hautatu zenuen Errekaleorr eta ez pisu arrunt bat?

Zalantza nuen. Atzera eragiten zidan bakarrik etortzeak horrenbeste konpartitzeko proiektu batera; ez nuen nahi gehiegi biluztea. Baina etortzea erabaki nuen proiektua bera asko gustatzen zitzaidalako eta komunitatean bizitzeko gogoa nuelako. Baratza oso gustuko izan dut beti.

Baratzean eman duzu denbora ugari. Zer ekoizten duzue?

Barazki-sorta: patata eta kipula asko, porruak, tomateak, piperrak, kuiak, kuiatxoak, babak…

Erraza izan da Errekaleorrera egokitzea?

Bai. Lehen blokean sartu nintzenean oso harrera ona egin zidaten. Saltsera naizenez, egokitzea ez zait asko kostatu.

Une gogorrik pasa duzu?

Argi mozketaren egunetan gaupasa eginda geunden, 48 ordutan *non stop*, hoz-

tuta ezin genuelako ezer berotu. Hirian, manifestazioan, kristoren babesa ikustea ikaragarria izan zen. Sentzazio arraroa izan nuen. Baina izan dira beste mila istorio gogor izan ditugun eraso desberdinetan: eraso sexistak, erasoak auzokideen artean, poliziarekin… Poliziak hasieran ia egunero identifikatzen gintuen. Orain ere pasatzen dira hemendik, baina oso lasai gaude zentzu horretan.

Gasteizko Udalak Errekaleor eraitsi nahi du. Baikorra zara?

Urtaran alkateak esan du aurrera jarraituko duela bere eraisketa planarekin. Ez naiz gehiegi esatera ausartzen. Kalean entzuten da atzera egingo duela Udalak, baina ez dago jakiterik. Argi mozketarekin, goizean, esaten genuen, 'ez dira etorriko', eta handik apur batera etorri ziren. Ez naiz gehiegi fidatzen. Baina, egia da, beti pentsatu dut ez gaituztela botako, eta ziurtasun hori daukat. Oso baikorra naiz zentzu horretan. Zaila da gu hemendik botatzea, bizilagun asko gara, eta bloke guztietan jendea dago.

Okupazio eta autokudeaketa mugimenduarentzat eredu zarete?

Erreferente izan gaitezke ez dagoelako horrelakorik. Auzo oso bat gara elkarbizitzen. Errekaleorrek ekarpena hori egiten dio Euskal Herriko okupazio mugimenduari. Baina gu bakarrik ez ginateke hemen egongo. Batez ere gasteiztarrengatik gaude gu hemen. Gasteizen badira gaztetxea, Los Arquillos, GES… beste okupazio eta autokudeaketa proiektu batzuk, eta eurekin elkarlanean ari gara.

Errekaleorrek alternatibak sortu dituela sentitzen duzu?

Gauza asko egin dira espazioak eskaintzen dituen aukerak asko direlako, eta gaitasuna egon badagoelako. Baina zaila da jarduna mantentzea bizilagunen joan-etorria handia delako, edota argia moztu eta esku hartean zenuen proiektua zapuzten dizutelako; zaila da berriro martxan jartzea. Alternatibak sortzeko kristoren lantegia da Errekaleor, baina ez gara izan behar beste errealistak, eta dena pausoz pauso eta motelako egin behar genuen, agian.

Aurrera begira zein helburu duzu?

Egun, martxan dauden entsegu lokala, kultur planifikazio potentea eta iluntze feministak finkatzea, besteak beste. Eta badira abian jartzeko proiektuak ere, esaterako, okindegia eta bizikletak konpontzeko tailerra. Hemendik kanpora ateratzeko bizilagunen %100ek bizikleta erabiltzen dugu, eta askotan bizikleta konpontzeko arazoak ditugu. Beharrizan horretatik sortuko dugu tailer bat, elkar formakuntzan oinarrituta.

Deustuko Gazte Lokalaren egoera zelan jarraitzen duzu Errekaleorretik?

Kolpe bioitza izan zen zeren ematen zuen Errekaleorrera eta Gazte Lokalera biak eraistera zetozela. Pentsatzen nuen, 'biak eraitsiko dituzte edo batere ez'. Sekulako pena sentitu nuen utzarazte aginduarekin. Gazte Lokala ardatz nagusia izan da nire bizitzan. Oso gustuko nuen jendearekin proiektuak konpartitzea. Saiatzen naiz informatzen eta Deustuko jendearekin hitz egiten. Zer gertatuko den zain nago.

"Erreferente izan gaitezke ez dagoelako horrelakorik. Auzo oso bat gara elkarbizitzen"

ATECE Bizkaia ixteko arriskuan

ATECE, Hartutako Garun Kaltearen Elkartea, duela 24 urte sortu zen garun lesioen ondorioz kaltetutako pertsonak laguntzeko asmoz. Gaur egun astero 72 pertsona igarotzen dira San Inazioko Kanariar Uharteak kalean elkarteak daukan lokaletik. Bertan terapia indibidualak (logopedia, laguntza psikologikoa eta fisioterapia tarteko) eta taldeko terapiak jasotzen dituzte, hartutako garun kaltearen ondorioak leuntzeko. Kaltetuen familientzat ere laguntza handia da ATECE, bertan dauden bitartean deskantsurako tartea izaten dutelako.

Boluntarioen lana

Astero 72 garun kaltetu hauei laguntza emateko bost profesional daude ATECE Bizkaian lanean, hainbat boluntarioz gain. Familiek eta kaltetuek eskatuta duela hiru urte Aisialdi Klub bat jarri zuten martxan ATECE Bizkaian. Proiektuaren sustatzaile eta ATECEko fisioterapeuta den Olatz Beldarrainek Aisialdi Kluba martxan jartzeko arrazoia azaldu digu. "Garuneko lesioen ondorioz kaltetuen bizitza zeharo aldatzen da, aisiarik gabe eta lagunik gabe geratzen dira asko". Berak antolatu zuen Aisialdi Kluba orain dela hiru urte, "kaltetuek eta haien familiek behar dutelako".

Olatzek azaldu digunaren arabera, laguntza eskaeraren aurrean San Inazioko auzotarren erantzuna bikaina izan zen, eta egun 6-7 boluntarioko taldeak bermatzen du hartutako garun kaltedunen aisia auzoan. Haiek gabe, ezinezkoa litzateke pertsona hauek kalera ateratzea eta elkartetik kanpo harremanak izatea.

Arazo ekonomiko larriak

Hala ere, boluntaioen laguntza ez da nahikoa elkartearen bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko. ATECE Bizkaiak urte asko daramatza jendearen donazioei esker bizirauten, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren laguntza-hitzarmenik gabe. Ondorioz, orain elkartea kinka larrian dago, ixteko arriskuan. Iazko gabonen ostean eman zuten arazoaren berri, elkartea egoera ekonomiko larrian dagoela salatuz. Sergio Murillo Autonomia Pertsonala Sustatzeko zuzendari nagusiarekin bildu izan dira irtenbideren bat bilatzeko, baina honek ez die laguntzarik eskaini "ezta laguntzeko asmorik erakutsi ere", Olatz Beldarrainek salatu duenaren arabera.

Foru Aldundiak Bizkaian hartutako garuneko kaltetuentzako eguneko bi zentro daudela esanez saihestu nahi izan du arazoa. Honen aurrean, ATECE Bizkaiako kideek hurrengoa erantzun dute: "Astean 72 pertsona pasatzen badira ATECEtik, argi dago Aldundiaren zentroak ez direla nahikoa, eta ATECE guztiz beharrezkoa dela".

Momentuz Bizkaiko Diputazioaren eta ATECEko zuzendaritza batzordearen erabakien zain daude, baina ez dute jarduerarik eten. Ekintza guztiak normaltasunez betetzen eta elkartearen egoera larria salatzen jarraitzen dute. Sare sozialetan *ATECE behar dugu, noizbait zuk ere behar izan dezakezulako* kanpaina jarri dute martxan, elkartea hartutako garun kaltedunen bizitza kalitaterako ezinbestekoa dela argi uzteko.

"ATECEk ixten badu pertsona guzti hauek etxean geratuko dira, errehabilitaziorik gabe eta aisiarako aukerarik gabe", salatu du Beldarrainek.

Deustuko Ikasle Eguna

Aurreko martxoaren 10ean Ibarrekolanda, Botikazar eta Deustuko Ikastolako ikasleek, Ikasleok Zorrotz dinamikaren baitan, Deustuko Ikasle Eguna antolatu zuten eguneko egitarau potolo batekin. Ez ziren gutxi izan aurretiazko lanak: asanblada irekiak, propaganda, azpiegituraren antolaketa... baina ikasleen arteko elkarlanaz egun alai eta aldarrikatzailea posible egin zuten. Goizez Gazte Lokalean egindako serigrafia tailerra eta arratsaldeko Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformaren hitzaldiak formakuntza gisa balio izan zuten. Bestalde, aisialdirako tartea ere izan zen ginkana eta indartsu hasi diren bi musika talde deustuarren kontzertuekin: Errainu eta Eztanda. Hala ere, momenturik beroena "Gora ikasleon borroka!" oihuen artean hasitako ekitaldi nagusia izan zen. Bertan, egungo hezkuntza sistema "arrotz eta zapaltzailea" kritikatu eta, aurreko urtean egin bezala, "LOMCE nahiz HEZIBERRI erreforma inposatzaileei planto egiteko deia" luzatu zuten.

Urtea: 1969

Txema Luzuriaga

Finkatzen hasiak

1969ko uztailaren 7ko argazkia da hau. Kanaleko hondartzan, Sarriko eta San Inazio aldean burutzen ari ziren egokitze-lanak ikus daitezke bertan. Kanaleko bazterretan finkatzen hasiak ziren eraikin industrialak atzematen dira, eta argazkiaren erdian Etxe Amerikarreko blokeak, 1964koak. Esteban Argarate, Rufino Basañez eta Julian Larrea arkitektuek Bilboko Udalak babestutako 132 etxebizitza eraikitzeko lehiaketa irabazi zuten 1963an. Argazkia: Udal Etxebizitzak.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!

~IZEKI~
TABERNA
BETI ZIZEKAN SUA
argi bat izeki zen zeruan
su horidun sugarra ostopo
itzalsuen atzean
Ramon & Kajal 26
DEUSTU
IZEKI

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfnoa: 94 475 11 24

www.bilbohiria.com
BI-96.0-FM
Bilbo Hiria irratia
berriak * musika
elkarrizketak

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

KONPONTZEA ETA INSTALAZIOA
☎ 656 410 475
Alonso Pertsianak
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 94 600 14 24
alonsoper@euskalnet.net

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

KABIA
GASTRONOMIA · TABERNA · KULTURA
ORIXE KALEA 48
SANI

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez
euskara zerbitzua
bai
Probatu
herrizki.eus
ANDROID APP
Google play
App Store
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BFA DFB

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!
aek

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

RONDOKO
HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
☎ 94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Zer deritzozu Deusto eta San Ignacio metroko geltokien izenak aldatzea eta Deustu eta San Inazio izatea orain?

Irune
Ibarrekolanda

Sarrikoko geltokiaren izena ere aldatu behar dute, Ibarrekolanda baita izen zuzena. Kexa asko ipini ditugu, baina alperrik, EHU hor dagoelako.

Markel
Deustu

Ondo. Gizartea aldatuz doan heinean egokitzen joan behar du garaian garaiko eskakizunetara.

Jone
Deustu

Positiboa da euskarazko izenak eta toponimoak bultzatzea. Beste arlo batzutan ere eman behar dira horrelako pausoak.

Azucena
Deustu

Aldaketa txikiak badira ondo deritzot. Aldaketa handiekin jendea despistatu egiten da.

Patxi
Basauri-Arangoiti

Ondo deritzot aldaketekin jendea zoratzen ez duten bitartean.

Alexia
Arangoiti

Ez naiz ohartu geltokien izenak aldatu dituztenik. Diru gastua iruditzen zait.

>> MUSIKA

80KO HAMARKADAKO BIZKAIKO PUNK TALDEEN BILDUMA

Andoni Fernandezek 1980ko hamarkadan maketak soilik grabatu zituzten Bizkaiko taldeen liburua argitaratu 'Mierda de Bizkaia y sus grupos maqueteros de punk 1977-1989' izenarekin. Liburuaren hazia Deustuko Gazte Lokaleko Txori-dendan dago.

Testua: Ane Zabala **Argazkiak:** Andoni Fernandez – E. Perez

Duela bost urte Andoni eta bere lagunek Deustuko Gazte Lokaleko Txori-dendan serigrafia tailerrean parte hartu zutenean hasi zen dena, liburuen artean *Egin* egunkari zaharrak aurkitu zituztenean. Punk taldeen bilduma egitearen ideia aspaldi zuen buruan, baina Txori-dendan aurkitutako *Egin* zaharrak piztu zuten proiektua. "Egunkari zaharretan Artrosis izeneko punk talde baten berria agertzen zen. Santurtziko taldearen inguruko albistea zen, argitaratu berri zuten maketaren inguruko xehetasunak emanez, albistearen bukaeran kontaktua agertzen zen, alegia, etxe bateko telefonoa. Animatu eta, erdi brometan, telefonora deitu zuten. "Seinalea eman eta erantzuna izan genuen, Lolo zuen izena, 23 urteren ostean bertan zegoen Artrosi taldeko partaidea". *Egin* egunkariak maketen deskribapena egitean, beti telefono kontaktua eransten zuen. Horien atzean, musika taldeetako kideen amak zeudela nabarmendu du Andoni Fernandezek. "80ko hamarkadako punk taldeen managerrak amak ziren, etxean telefonoa hartzen zutenak". Deustuko Gazte Lokaletik eginiko dei horrek eman zion abiapuntua liburua hasteko.

59 talderen erreferentziak bildu ditu liburuan, eta musikaren inguruan sasoi artean ibilitakoei eginiko 10 elkarrizketa. Fanzinetako kideei, lehenengo diskoetxetako arduradunei edota soinu teknikariei eginiko elkarrizketak dira. Horiek garaiko beste "ikuspuntu bat" ematen dute.

Andoni 1983an jaiotakoa da eta, beraz, garai hori ez du bizi izan, baina garai horretako musikarekin hezi da. "Beti mirestu dut garai hori. Ni ere musika taldeetan ibilitako naiz. Beti teloneroak izan gara. Gure taldeak ere badu bere historia, 80ko hamarkadan ibilitako talde askok bezala". Horregatik erabaki zuen horien informazioa eta erreferentziak batzea *Mierda de Bizkaia y sus grupos de punk maqueteros 1977-1989* liburuan. Talde guztien bilaketa-lana garaiko fanzineetan argitaratutako kronika eta albisteen bitartez egin du. Taldeetako partaideekin kontaktuan jarri eta etxez-etxe ibili

da, elkarrizketak egiten. Bost urteko prozesu luzea izan da, “inurri lana”.

Erreferentzietan denetariko taldeak daude. Badira ezer grabatu ez zutenak, beste batzuk lan bakarra argitaratu zutenak. Denak sasoi hartako musika mugimenduan ibilitakoak dira. “Talde batek, agian, hiru maketa argitaratu zituen eta beste batek, hiru urte jotzen ibili eta gero, ez zuen batere argitaratu. Hori oso interesgarria iruditzen zait”, dio Andonik. Punk taldeen bilketa egin du soilik. Bestelako estiloa jorratzen zuten taldeak ez ditugu liburuan aurkituko.

Maketen bilketa egiteaz gain, maketak digitalizatu eta interneten eskegi ditu. Jende guztiaren esku jarri nahi izan ditu, dohainik. Andonik argi du liburu honen bitartez “duintasuna” eman nahi izan diela 80ko punk taldeei. Zazpi Katu gaztetxean liburuaren aurkezpena egin zutenean, taldekideak “oso eskertuta agertu ziren”.

Lehenengo edizioa agortuta, bigarrena plazaratu berri du Andonik.

#MinoritySafePack

Europako erakundeek hizkuntza gutxituak babesteko legea bideratzeko

Europa mailako FUEN elkarteak (Europar Nazionalitateen Batasun Federala) milioi bat sinadura lortu nahi ditu, Europako erakundeei kultura eta hizkuntza gutxituak babesteko lege bat eskatzeko. *Minority SafePack* kanpainan gutxienez zazpi estatukoak diren milioi bat sinadura lortu behar dira, gero eskaera hori Europako Parlamentura bidali ahal izateko. Irailean hasi zen ekimena, eta apirilaren 2an bukatuko da.

---

www.berbaizu.org



‘Joseba Sarrionandia hemen eta han’ dokumentala

Iurretako euskal idazlearen bizitzari eta obrari buruzko dokumentala da *Joseba Sarrionandia hemen eta han* izenekoa. Sarrionandiaren hitzez gain, bere hurbilekoen eta artisten hitzak biltzen ditu filmak 43 minututan. Hemen, Euskal Herrian, eta han, Kuban, kokatzen da lana.

2017an Peru Magdalena eta Pello Salaberriak zuzendutakoa da.

Apirilaren 25ean Irakurleen Txokoan dokumentala ikusteko aukera izango da Bidarte auzo etxean eta, ondoren, Peru Magdalena zuzendarietako batekin solasaldia.

11eguneuskaraz.blogariak.net

Bideoa eta jaia

Deustuko Hamaika Egun Euskaraz Iantaldeak bideo bat grabatuko du apirilean zehar Euskaraldia sostengatzeko. Bideoaren helburua Deustuko herritarren atxikimenduak biltzea da.

Ildo berean, Iantaldeak Euskaraldiaren aldeko jaia antolatu du maiatzaren 26an Deustuko Gazte Lokalean.

Hizkuntza ohiturak astindu eta ohiko harremanetan euskara gehiago erabiltzeko ariketa da Euskaraldia. 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, hamaika egunez euskaraz hitz egiten edo ulertzen duten guztien artean euskararen erabilera sustatzeko ekimena.

GOI HERRI DANTZA TALDEAK 40. URTE BETEKO DITU

40 urte beteko dira aurten San Inazioko Goi Herri Dantza Taldea sortu zenetik. Berez, 1976an sortu zuten taldea San Inazioko auzotarrek, baina 1978an egin zenez erregistro ofiziala aurten ospatuko dute 40. urteurrena.

Testua: Jone Gartzia / **Argazkiak:** Goi Herri

Franco hil eta berehala hainbat talde eta auzo elkarte hasi ziren sortzen Bilbo inguruan. San Inazion lehenetarikoa Goi Herri Dantza Taldea izan zen. Inguruko herri eta auzo gehienetan bezala, hemen ere euskal dantza talde bat sortzeko grina zeukaten auzokideek. Ordurako Deustun Bihotz-Alai eta Ikas Dantza Taldea sortuak zeuden, eta San Inazion bide berari ekin zioten.

Goi Herri Dantza Taldea 1976an sortu zen, baina 1978ra arte ez zuten ofizialki erregistratu, eta horregatik ospatuko dute aurten 40. urteurrena. Urte horietan beste hainbat talde sortu ziren San Inazion, 1976tik aurrera Kultur Etxean batzen hasi zirenak. Eraikina gaur egun Euskararen Etxea da, baina 1976an auzokideek berreskuratua izan aurretik, Sindikatu Bertikalaren egoitza izan zen. Goi Herri Dantza taldea ere bertan izan zen entseatzen 2002. urtean eraikina utzarazi eta Bizkaiko Foru Aldundiak Euskararen Etxeko proiektua hasi zuen arte. Hortik aurrera, San Inazioko eskolan eta Intxixu ikastolan hasi ziren biltzen, entseatzeko lokal baten baten faltan. Gaur egun San Inazio-Ibarrekolandako Kultur Merkatuan entseatzen dute, baina materiala gordetzeko biltegia alokatu behar izan dute.

40. urteurrena

Apirilaren 21ean, larunbata, 40. urteurrena ospatuko du Goi Herri Dantza Taldeak. Asmoa festaz betetako "egun handia" izatea da, taldekideek esan digutenez.

Egunari hasiera eman eta auzoa girotzeko, goizean triki-poteoa egingo dute. Bazkalorduan belaunaldi desberdinetako Goi Herriko kideak bilduko dira Baztan enparantzan elkarrekin bazkaltzeko. Urtero egiten dute bazkari bat dantza taldeko dantzari, txistulari, eta talde motorreko kideen artean, baina aurten ahalik eta kide gehien batzea dute helburu. Arratsaldean, dantza ikuskizuna egingo dute Goi-Herriko belaunaldi guztien artean eta, egunari amaiera emateko, erromeria eta berbena antolatu dituzte, dena Baztan plazan. Gainera, apirilean zehar argazki-erakusketa izango da ikusgai Kultur Merkatuan.

Gaur egungo egoera

Lau hamarkadaren ospakizunarekin beste 40 urterako energia bildu nahi dute taldekideek, ez

baitira une erraza igarotzen ari. Ume asko badituzte ere, taldea dinamizatzen duten helduak ez dira hainbeste, eta askok urte luzeak daramatzate taldean. Erreleborik izango ez duten beldur dira, eta horregatik hots egiten diete euskal dantzak eta euskal kultura maite duten auzokideei proiektuaren parte izatera animatu daitezen.

Helduen erromeria taldea

Duela urte batzuk helduentzako erromeria ikastaroa jarri zuten martxan. “Arrakasta itzela da urtero”, azaldu digute antolatzaileek. Urritik otsailera bitartean erromerietako dantzak ikasi eta entseatzen dituzte. Bertaratzen diren gehienek ez dute inoiz aukerarik izan euskal dantzak ikasteko, baina gustuko dute, eta horregatik animatzen dira.

“Urritik otsailera bitarteko ikastaroa izanik, ez du konpromiso eta jarraikortasun handiegirik exigitzen auzotarrentzat, eta jaietan dantzatzeko beldurra kentzen laguntzen du”, argitu digute Goi Herriko kideek.

Txistularien garrantzia

Txistularien garrantzia ere azpimarratu dute dantza taldeko kideek. Goi Herriren lehenengo urteetan ez zeukaten txistularirik taldean, eta kasete batekin entseatu behar zuten. Gerora hasi ziren txistulariarekin entseatzen. Urteak eman zituzten horrela, digitalak zuzeneko musikari irabazi zion arte, eta gaur egun ohitura galdu egin da. “Orain txistularia plazan dantzatzeko bakarrik behar da, eta txistulari gutxi daude”, azaldu digute.

Tradizioa ez galtzeko eta txistularien erreleboa bermatzeko asmoz, Goi Herriko txistularia duela bizpahiru urte hasi zen taldekideei txistua irakasten. Hainbat ume zein heldu animatu dira euskal dantzetan hain garrantzitsua den musika tresna hau jotzen ikasten.

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

ALEGRIADUN GILDAK

Heliodoro de la Torre kaleko 5. zenbakian dagoen Deustuko Batzokira jo dugu oraingoan ere. Egunero jateko goxoz beteta dagoen barraren beste aldetik, Felipe eta Gorkak tabernako eskaintzaren berri eman digute.

Zailtasun maila: txikia

Egiteko denbora: segundo batzuk

Prezioa: 1,00€

Berezitasuna: alegriak ahoan emanten duen berotasuna

Kontu batzuk

Deustuko Batzokiak 40 urte bete ditu, eta Batzokiko tabernak indartsu eusten dio urteurrenari eta datorrenari. Felipe, Fredy eta Gorka lan eta lan ari dira egunero pintxo eta gilda goxoak prestatzen eta eguneko menuak, asteburutako menu bereziak eta enkargupekoak eskaintzen. Indabak, paellak eta harrian erretako txuletoiak oso arrakastatsuak dira bezeroen artean.

Deustuko Batzokiko Gorka

DEUSTUKO BATZOKIA
Heliodoro de la Torre 5 - Deustu
94 405 06 58
Astegunetan: 7:00-22:30
Asteburutan: 10:00-itxi arte

Zelan egin?

Osagaiak kalitatezkoak badira gilda goxoa erraz prestatzen da. Deustuko Batzokian Celorrio eta Vela etxeetako produktuak erabiltzen dituzte, Errioxako alegria eta Nafarroako oliba-olio birjina estra.

Gildaren prestaketak ez du misteriorik. Zotzean osagaiak sartu eta kito.

Batzokikoak gilda biziak dira, minak, bezeroen oso gustukoak. Egunero 50 bat egin eta agortzen dira.

OSAGAIAK

Piparra
Errioxako alegria
Antxoa
Oliba
Oliba-olioa
Ogia

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO → Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

JOSU OLEAGA
Edozein

ILUSIOAK... ERREALITATEA... ERABAKIAK

Larunbat gaua Deustuko taberna batean. Gitarra aldean zeukan tipoak esan zuen: "Abesti honek ilusioei eta errealitateei buruz hitz egiten du". Esaldi horrek burrunba egin zuen nire barruan. Sinonimoak izan zitezkeen bi kontzeptu oso urrun zeuden elkarren artean. Distantzia hori aspalditik zetorren, eta garaiezina iruditu zitzaidan. Abestia amaitu zenerako, oso argi neukan bazela garaia erabaki batzuk hartzeko.

Baina metodo bat behar nuen, ezin nuen berriro huts egin. Eta Suzy Welchen *10-10-10* metodoa aurkitu nuen. Oinarrian, hiru galderari erantzun behar zaie: zein izango dira nire erabakien ondorioak 10 minutu barru? Eta 10 hilabete barru? Eta 10 urte barru? Metodoaren helburua da, erabakiak hartzerakoan, etorkizunera begira ditudan lehentasunek pisu handiagoa izatea hainbat emoziok baino, hau da, amorrua, samina eta zikoikeria alde batera uztea.

Eta erabaki nuen, besteak beste, ispiluko tipoaz maiteminduko nintzela, horixe izango baita nik izango dudan harremanik egiazkoena eta iraunkorrena. Ziurgabetasuna lagun izango dudala, ez dudala gorrotatuko, harekin guztia askoz dibertigarriagoa baita. Gehiago arduratuko naizela aske hegan egiteaz oso garai hegan egiteaz baino, askoz zailagoa den arren. Politikoki zuzena den horretatik ihes egingo dudala, menderatze sozialaren forma modernoa baino ez da eta. Beti baloratuko ditudala adimena eta ausardia, bata bestea gabe ez baita ezer. Eta ikusle izateari utzi eta nire bizitzaren aktore nagusi bihurtuko naizela.

Metodoari buruz ikertzeko eta zuen bizitzan aplikatzeko gomendatzen dizuet. Ilusioen eta errealitatearen arteko arrakala txikitu egingo da, eta, nahi duzuen guztia lortuko ez duzuen arren, behar duzuena lortuko duzue. Aspaldi esan zigun hori Stones taldeak eta beraiek esaten badute...

ITXASNE RODRIGUEZ MAROTO
Elorri bertso-eskolako kidea

GOZA DEZAGUN HEMENTXE DANOK

Doinua: *Nafarroako mendi gainetan*

Zapatua da ta tokatzen zait
Deustun bai txosnako txanda
gazteak dabilz dantzan ta abesten
mozkor-mozkor dinbi-danba
Glaukoma hasi, eta beragaz
hasi egin da parranda
goza dezagun hementxe danok
gazte ta aske izanda

Lore bat eta eguzkia irten
heldu zaigu udazkena
eta Deustuko jaietan txosnan
emango dogu guk dena
gau ta egunez gogoratzen dut
nirea daukadan lema
gaua gozatu ta imaginatu
izango dela azkena

Urtarrila - Otsaila - Martxoa - Abirila 2018ko

2-8 URTE

TXOTXONGILOAK, IPUIN KONTALARIAK, MAGIA, ANTZERKIA...

IKUSI ETA IKASI

• BILBOKO HAUR KULTUR ZIRKUITUA •

FAMILIA GIROAN GOZATZEKO AISIALDIA

ANTZERKIA · MAGIA · ZIRKOA · TAILERRAK · DANTZALDIA · HITZALDIA · KONTZERTU DIDAKTIKOA · IPUIN KONTAKETA

04/09 APIKA TALDEA
Olabeagako udaltegian, *18:00etan*

04/10 PUSKI ETA TXURRUSKI
Begoñako udaltegian, *18:00etan*

04/11 HALA DZIPO
Errekaldeko udaltegian, *18:00etan*

04/12 IÑAKI LASA
Ibaialde liburutegian, *18:00etan*

04/13 ZIRIKA ZIRKUS
Karmen aretoan, *18:00etan*

04/14 ODEI ARREGI
Zorrotzako udaltegian, 11:00etan

04/16 GOZOKI NATURALEN TAILERRA
Olabeagako udaltegian, *18:00etan*

04/17 ABELTXURIAK
Begoñako udaltegian, *18:00etan*

04/18 ABELTXURIAK
Errekaldeko udaltegian, *18:00etan*

04/19 AMAIA ELIZAGOIEN
Ibaialde liburutegian, *18:00etan*

04/20 GO!AZEN
Karmen aretoan, *18:00etan*

Zure seme-alabekin euskaraz disfrutatzeko baliabideak sarean:
IKUSI ETA IKASI BLOGA

Aholkuak, eskulanak, bideoak, esteka interesgarriak,zozketak...
www.ikusietaikasi.eus

Bilbao

euskaltzaleen topagunea

EUSKAL GARAGARDO NATURALA!